

Kontsultak arratsaldeko 20:00ak arte luzatu dira anbulatorioan

■ Mediku berri bat etorri da (Altuna) bezeroak arratsaldean hartuko dituen
■ Orain, 9 mediku, 2 pediatra eta ginekologo bat daude.



Zenbait ez da larritu ere egiten indizio batzuen gorabeheran.

35 ORDUKO lan astea dela-eta, kabezerako mediku berriak jarri behar izan dituzte Gipuzkoako hainbat herritan. Hernanin ere mediku berria izango dugu, eta horren ondorioz zenbait herritarrek beren sendagilea aldatu beharko dute. Aldaketa egokitu zaienei Osakidetzak gutun bat bidali die. Horrez gain, erizain eta administratibo berri bat ere hartu dituzte anbulatorioan.

KONTSULTAK ARRATSALDEZ

Altuna, Hernaniko sendagile berriak arratsaldez hartuko ditu kontsultak, Gipuzkoako beste zenbait herrietan bezalaxe. Ordutegia 13:00etatik 20:00ak artekoa izango da astelehenetik ostiralera. Arratsaldez egokiago dator-kion jendeari zerbitzu egokia ematea da helburua. Medikua aldaketa egitea herritarren esku dago; kontsultak arra-

tsaldez izan nahi dituztenek anbulatoria deitu beharko dute, beraz, eta ahal den neurrian aldatuko zaie medikua.

Anbulatorioko ordutegia:
08:00etatik 20:00etara kontsultak izango dira; 20:00etatik 08:00etara urgentzietako zerbitzua.

NEGU BIGUNA

Bestalde, neguko balantze-txoa ere egin digute anbulatorioan. Aurten oso gripe eta katarro gutxi izan da, baina, erruduna ez omen da txertoa. Carmen Blanco anbulatorioko zuzendariaren hitzetan "hain gripe gutxi zerk eraginda izan dugun ez dago esaterik. Agian negu biguna izateak eragingo zuen".

2000-TIK GORA TXERTO
65 urtetik gorakoek eta gaitz kronikoak dituztenek hartu ohi dute gripearen kontrako txertoa normalean. Beste nor-

baitek hartu nahiko balu ere ematen zaio, hala ere. Aurten bi mila eta piko jarri omen dituzte. Horrez gain tetanoaren kontrakoak ere jarri dituzte, 800 inguru.

IKASTETXEETAN MAIATZEAN

Maiatzean 12-13 urteko ikasleei *Hepatitis*aren kontrako txertoa jarriko zaie. Urrian eta azaroan jarri zizkieten lehen dosiak eta honekin bukatuko dute. 16 urtekoei, berriz, *difteria* eta *tetano*aren kontrako txertoa jarriko diete maiatzaren 4ean. Gazteagoei anbulatorioan bertan jartzen dizkiete txertoak normalean, errebisioa egitera joaten direnean. □

■ FUTBOLA -3.MAILA-

Hernanik 3-0 galdu, asteazkenean Lemoan

■ Jetsiera postutan jarraitzen dute hernaniarrek ■
Liga amaitzeko lau partidu falta dira.

ASTE Santua zela eta, aurreko jardunaldiari zegokion partidua, asteazken iluntzean jokatu zuen Hernanik Lemoan. Bertan, 3-0 galdu zuen talde zuriberdeak. Lemoarrak liderrak dira, eta berdegunean, argi utzi zuten bi taldeen arteko aldea.

GOLAK PIXKANAKA

Lehenengo zatiko 18garren minutuan egin zuen 1-0-ekoa Lemoak. Bigarren zatia hasi eta berehala 2garrena, eta handik 20 minutura partidua era-

bakita utzi zuen 3-0-koarekin.

EGOERA LARRIA

Egoera oso zailean gelditu da orain Hernani. Azken jardunaldiko emaitzak aurkakoak izan dira hernaniarrentzat, batera dauden talde gehienek irabazi egin baitute. Jetsiera postuetan da Hernani, eta *salbazioa* 5 puntutara du. Aldea murrizteko derrigorrezkoa da gelditzen diren lau partidua irabaztea. Hurrengo partidua etxean du Bermeoren aurka. □

■ ESKUBALOIA (GIPUZKOAKO KOPA)

Hernani-Bera Bera bihar kiroldegian

■ Larunbatean 18:00etan ■ Kopako lehen partidua da ■ Beste taldeak: Aloña, Elgoibar eta Zarautz.

HERNANIKO Eskubaloitaldeak, bihar hasiko du Gipuzkoako kopa. Liga lider bukatu du. Orain, datorren astean apirilaren 26tik 29ra, Hernanin bertan jokatu den igoera fasearen zain dago. Baina, zita garrantzitsu hau iritsi aurretik, kopari ekin beharko dio Hernanik.

GIPUZKOAKO BOST TALDE

Gipuzkoako kopa 5 talderen artean jokatu da, aurtentzen: Aloña, Elgoibar, Zarautz, Bera Bera eta Hernani. Lehenengo partidua bihar jokatu dute Hernanik eta Bera Berak, kiroldegian, arratsaldeko 18:00etan hasita. □

Andrekalean ura moztuko dute gaur, Plaza Berriatik behera

■ Andrekalean (Kardaberaz) behealdeko portaletan ura moztua egongo da gaur goizeko 09:00etatik eguerdiko 14:00ak arte ■ Alde Zaharreko berritze lanen barruan ur tuberiak aldatzen ari dira orain, eta horregatik moztuko dute ura.

Zure publizitatea

**HERNANIKO
KRONIKAN**

☎ 943 330899

PROCOLOR ZENTRUA
Landaribar, s.l.

*Pintatzeko ekipak
Industri eta dekoraziorako pinturak
Pintatutako paperak*

Kardaberaz 45 -Tel 943 552131-HERNANI



HEZKUNTZA, TERAPIA ETA
IKERKETA SEXOLOGIKOAREN
SUSTAPENERAKO ELKARTEA

Hezkuntza - Sexu orientabidea -
Sexu terapia - Masaje ikastaroak -
Sexologia formakuntza eskola

Elizatzko 77-2. ☎ 943 55 09 17
20120 Hernani



Kardaberaz, 39
Tel: 943 55 27 87
HERNANI



Antziola 5 - Tel. 943 330 365
20120 HERNANI

■ ARRAUNA

Laguntzaile txartelak atera ditu arraun elkarteak

■ Direktibakoei edo arraunlariei eskatu ■ Txartelak 2.000 ptan.



Hernani-Ubis taldekoak Orioko jeitsieran, dituztenak ematen.

HERNANIKO arraun elkarteak laguntzaile txartelak atera ditu urteroko moduan, aurrekontuari buelta eman ahal izateko. Jubenilak eta nagusietan neska eta mutilen taldeak atera dituzte..


5.000.000 PTA INGURU
5.000.000 ptako aurrekontua du arraunak Hernanin; enpresen eta udalaren laguntzaz gain banakakoena ere behar izaten du. Ia 400 lagun dira urtero arraunari laguntza ema-

ten diotenak Hernanin eta aurren ere kopuru horretara iritsiko direlakoan dira elkartekoak. Arraun elkarteari lagundu nahi dionak direktibakoei edo arraunlariei eskatu laguntzaile txartelak. □

BERTSOLARITZA (GIPUZKOAKO TXAPELKETA)

Gaur eta bihar hernaniarrak kantuan finalaurrekoetan

■ U. Agirrek gaur kantatuko du Elgoibarren ■ Bihar I. Zelaiak eta A. Zerainek Urnietan ■ Bi saioak 22:30etan ■ Lehen 12ak Euskal Herriko txapelketara pasako dira.



Iñaki zeruko ispirazio bila, eta Ainhoa txundituta.

GAUR hasiko da Gipuzkoako kanporaketako 2garren fasea. Bigarren fase honetan 24 bertsolari izango dira, horietatik 4 hernaniarrak: Unai Agirre,

Estitxu Eizagirre, Iñaki Zelaia eta Aritz Zerain. Hauez gain beste bi Irauliotar ere badira tartean, Aitor Mendiluze eta Amaia Agirre.

BAKOITZAK BI SAIO

Hogeitalau bertsolari hauek seiko lau taldetan banatu dituzte, eta talde bakoitzak bi saio egin beharko ditu. Bi saioetako puntuak batu ondoren, 12 lehenengoez Euskal Herriko txapelketarako txartela lortuko dute.

GAUR ELGOIBARREN


Finalaurrekoetako lehenengo saioa gaur izango da Elgoibarreko Udal Antzokian. Bertan Unai Agirrek kantatuko du, Harkaitz eta Ekaitz Goikoe-txea, Gorostidi, Jon Martin eta Aranbururekin, gaueko 22:30etatik aurrera. Bihar Urnietako Sarobe Aretoan izango da saioa, eta Iñaki Zelaia eta Aritz Zerain arituko dira bertan, Elustondo, Otamendi, Epelde eta A. Agirrerekin batera. Estitxu Eizagirrek apirilaren 28an kantatuko du Billa-bonan. Bigarren itzulia maia-tzean izango da.

Ea Maialen Lujanbiori zenbat hernanirrek laguntzen dioten Euskal Herriko txapelketa nagusian. □

■ ERREMONTA GALARRETAN

Masterreko lehen partidua: Zeberio II-Iriarte 40 Ezkurra-Urretabizkaia II 30

■ Larunbatean Iruñan izango da Masterreko partidua.



Bi atzelariak atzoko partiduan, atsedean batean.

ATZO arratsaldean jokatu zen Erremonteko Masterraren lehenengo partidua. Bertan Zeberio II-Iriarte nagusitu ziren 40-30 Ezkurra-Urretabizkaia-aren aurrean. Torneo honetan, oso zaila da faborito nor den esatea. Hala ere, gehienetan Ezkurra agertzen da pronostikoetan, baina atzokoan galtzaile suertatu zen.

Zeberio II-Iriarte jarri dira ligaskaren buruan.

HURRENGO PARTIDUAK

Larunbatean Huarteko Euskal Jai Berrin izango da Masterraren partidua. Galarretan hurrengo ostegunean, atzoko irabazleek jokatuko dute, Altuna I-Eizagirreraren aurka.□

■ ERRUGBIA -ERRUGBI ZAZPI-

Zaragozako torneora dioa bihar Hernaniko taldea

■ Ejea de Caballeros herrian jokatuko dute.

■ PLATER TIRAKETA

Hernaniarrak Toledon gaur, bihar eta etzi

■ Toledoko La Bastida herrian izango dute tiraldia ■ Espainia mailako Gran Prix-a da ■ Ion Azpiazu hernaniarrak bertan konpetituko du.

ASTEBURUKO ZINEA BITERIN

‘Prueba de vida’

■ Ostiralean 22:30etan; Larunbatean 19:30 eta 22:30etan; eta igandean 19:30etan ■ Haurrentzako zinerik ez da gehiago izango urrirarte

HERIOTZAK

Marcelina Iztueta Garmendia
Asteazkenean hil zen 94 urte zituela.

IRRATIAK

(F.M. 99.2) **11:30etan:** Miel Guri hizketan **11:40etan:** Errenta Aitorpenean, gastu militarrekiko eragozpen fiskalari buruz arituko dira. **12:30etan:** Haikako kide bat Oiartzunen ospatuko den Haikaldiari buruz jardungo da.

ZERBITZUAK

☎ TELEFONOAK	☎ FARMAZIAK
►Taxiak: 943 550093	►Egunez: Irigoien Elkano, 2
►Udaltzaingoa: 943 333288	☎ 943 552087
►DYA: 943 464622	►Gauzez: Elizondo
►Autobusak: 943 556662	Andoain. Zumea, 30
►Anbulatorioa: 943 557750	☎ 943 592629
►Jokalaria anonimoak 943 331103	